


II. GAZTEZULO

BIDEO LEHIAKETA

HI ETA HIRE



MUNDUAK

1. GO SARIA
1.500€

2. SARIA
500€


OINARRIAK:

gaztezulo
HI ETA HIRE MUNDUAK

COM

gac gazteukero

ERDIO PARLAMENTUA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAHIA
Gazteak 2006-2007



3, 2, 1... HIRE TXANDA!

NOLAKOA DA ZURE EDO ZUEN MUNDUA? ZERTAN EMATEN DUZU(E) DENBORA? ZERK DEFINITZEN ZAITU(ZTE)? GAURTIK HASITA, AZAROAREN 15ERA ARTEKO EPEA DUZUE ZUEN UNIBERTSOARI ESANAHIA EMATEN DIOTEN AMETSAK, ZALETASUNAK, NAHIAK, GERTAERAK ETA NAHI BESTE ASPEKTU BIDEO LABUR BATEAN BILTZEKO. IAZ BEZALA, AURTEN ERE IKUS-ENTZUNEZKOEN ESPARRUKO ZENBAIT ADITUK OSATUTAKO EPAIMAHAIA ARDURATUKO DA BIDALITAKO LANAK IKUSI ETA ONENAK ZEIN DIREN DELIBERATZEAZ. IRABAZLEEN IZENAK ABENDUAN EZAGUTARAZIKO DITUGU. SARI BIKAINAK DITUZUE ZAIN! 1.500 EURO ONENAREN TZAT, 500 EURO BIGARRENAREN TZAT, ETA PRODUKTU ELEKTRONIKOZ ETA GAZTEZULO MATERIALEZ HORNITUTAKO OTARREA IKUSLEEN SARIA JASOTZEN DUENAREN TZAT! EKIN!

LEHIAKETAREN OINARRIAK

Gaia: Bideoek 'Hi eta hire munduak' gaia izango dute oinarri

Iraupena: gutxienez minutu 1 eta gehienez 3 minutuko iraupena izango dute.

Epea: Bideoak azaroaren 1etik azaroaren 15era bitarte igo daitezke.

Parte-harztaileak:

16 urtetik gorako gazteak. Bestalde, bideoan 16 urtetik beherako neska-mutilik agertuko balitz, ezinbestekoa litzateke guraso edo tutoreen baimena izatea.

Parte-hartzea:

Pertsona edo talde bakoitzak nahi beste lan bidal ditzake.

Bideoak Youtubera igo behar dira lehenik, eta bertatik kode enbotatua hartuta, **gaztezulo.com** webguneko 'Bideo Lehiaketa' atalean topatuko duzuen formularioa bete beharko duzue ondoren. Besteak beste, taldearen izena, taldekideen izen-abizenak, herria, kontaktua, bideoaren izenburua eta deskribapen labur bat zehaztu beharko dira formulario honetan. Kode enbotatua erantsita, bideoa ikusgai izango da **gaztezulo.com**-en, eta bertan ikusleen botuak eta iruzkinak jaso ahal izango ditu. Bideoak entregatzeko epea azaroaren 15ean agortu arren, lanak azaroaren 22ra arte mantenduko ditugu sareratuta, nahi duen orok bozkatu dezan. Ez da antolatzaileen ardura izango, arazoren bat tarteko, bideoak Youtuben ezin ondo ikustea.

Arauk:

- Bideoak hizkuntz edukiren bat izatekotan (musika, ahotsa, elementu grafikoak...), honek EUSKARAZKOA behar du izan.
- Aurkezten diren bideoek originalak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Ez da onartuko aurrez beste lehiaketaren batean aurkeztutako lanik.



- Parte hartzaileek **gaztezulo.com**-en aipatutako formularioa bete ahal sareratuko dira lanak. Hala ere, antolatzaileek beregain hartzen dute bideo batzuk lehiaketatik kanpo uzteko eskubidea (giza eskubideen kontrakoak direla uste badu: bortizkeria, irainak, arrazakeria, sexismoa edota errespetu falta ez dira onartuko).
- Parte hartzeak esan nahi du egileak aitortzen duela bidalitako lanaren eta haren edukiaren arduraduna dela.
- Saritutako eta hautatutako bideoen egileak GAZTEZULOrri uzten dizkiete euren irudien komunikazio eta erreprodukzio-eskubideak.

Epaimahaia:

GAZTEZULOK izendatutako aditu talde batek osatuko du (ikus-entzunezko esparruko izen ezagunak). Lanak ikusi eta puntuatuko ditu kalitate teknikoa, originaltasuna, talde lana eta sormena kontuan hartuta.

Sariak:

- 1go Saria: Bideo onenaren egileak 1.500 euroko saria jasoko du.
- 2. Saria: Bigarren bideo onenaren egileak 500 euroko saria jasoko du.
- Ikusleen Saria: **gaztezulo.com** webgunean ikusleen boto gehien biltzen dituen lanaren egileak produktu elektronikoz eta GAZTEZULO materialez hornitutako otarrea jasoko du.